

ERASMUS+ IKASLE PRAKTIKAK 2022 PROGRAMA

2022/2023 Deialdia

Zenbatekoa

ATZERRIKO HERRIAREN ARABERA:

TALDEAK	HERRIALDEAREN ZERRENTA	HILEKO KOPURUA	* KOPURU OSAGARRIA
1. taldea	Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Erresuma Batua eta Suedia	460 €	250 €
2. taldea	Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Italia, Malta, Portugal, Txipre	410 €	250 €
3. taldea	Bulgaria, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Kroazia, Letonia, Lituania, Ipar Mazedoniako Errepublikak, Polonia, Serbia, Turkia, Txekiar Errepublika	360 €	250 €

* Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza gehigarria:

Lehenengo atalekoaz gain, 250 €-ko kopuru gehigarri bat finantzatuko zaie hilero egoera hauetakoren batean dauden ikasleei:

- Estatuko Administrazio Orokorrek izaera orokorreko ikasketa beka bat jaso izana unibertsitate ikasketak eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka bat, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak emandako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko beka bat, mugikortasuna egin aurreko ikasturtean.
- Errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea izatea, edo Espainian nazioarteko babeserako eskaera aurkeztu izana. Bidali dokumentazioa enpleguguneak@ehu.eus helbidera.
- Legez ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta eta kalifikatuta izatea. Bidali dokumentazioa enpleguguneak@ehu.eus helbidera.

BERRIA: 50 euroko laguntza bidaia ekologikoa egiten duten ikasleentzat (ibilbidearen zatirik handiena hegazkinaren ordezkotzat garraioarekin). Eta beste 4 eguneko laguntza, hala badagokio.

Halaber, laguntza osagarriak egon litezke, beste organismo eta erakundeek eskainitakoak (adib. Eusko Jaularitzakoak). Laguntza horien baldintza, betebeharrak eta zenbatekoak zehaztuko dira 2022/2023 ikasturterako onetsitako hitzarmenen eta hartutako erabakien arabera.